

URAREN EUSKAL AGENTZIARAKO KOMUNIKAZIO-TEKNIKARIAREN LANPOSTUA BETETZEKO PROZESUA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

LEHENENGO OINARRIA. - DEIALDIAREN XEDEA

Oinarri hauen xedea komunikazio-teknikariaren lanpostua betetzeko prozedura arautzea da; Lanpostua URAREN EUSKAL AGENTZIA (Eusko Jaurlaritzako Industria, Energia Trantsizio eta Jasangarritasun Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa) jardungo duen lan-kontratudun langile finko gisa beteko da, Uraren Euskal Agentziaren bulego nagusian (Gasteiz) zerbitzuak emateko.

Deialdiaren xede den lanpostua behin betiko beteko da, lanaldi osoz, teknikari-kategorian; urteko soldata gordina 53.606,24 eurokoa izango da.

Era berean, aldi baterako zerbitzuak betetzeko komunikazio-teknikariaren lanposturako lan-poltsa bat sortuko da, zazpigarren oinarrian aurreikusitako kasuetan izan ezik, Uraren Euskal Agentziaren egoitza nagusian, oinarri hauetan zehazten den moduan.

Prozedura honi urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 52., 53. 54. 55. eta 59. artikulua aplikatuko zaizkio (xedapen horrek Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartu zuen).

Deialdi hau EHAAr argitaratuko da, eta oinarriak Agentziaren webgunean eskuratu daitezke (www.uragentzia.euskadi.eus).

LANPOSTUAREN XEDE OROKORRA

Komunikazio-jarduerak sustatu eta garatzea, baita erakunde eta komunikabideekiko harremanak ere.

EGITEKO OROKORRAK

- Lantokien jarduketak koordinatzea bere jardun-eremuan.
- Bere jardun-eremuan irizpideak proposatzea.
- Pentsari eta komunikazioari buruz aholkatzea
- Komunikazioko planak eta programak kudeatzea
- WEBean informazioa editatzea
- Pentsako eta komunikazioko informazioa kontrolatzea.
- Pentsa eta komunikazioko kontsultei erantzutea.
- Pentsan eta komunikazioan jarduerak sustatzea.

- Prentsako eta komunikazioko elkarrizketak eta kontaktuak kudeatzea.
- Prentsa-dosierak egitea.

BIGARREN OINARRIA. - IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

A) BALDINTZA OROKORRAK

- a) Nazionalitatea: Europar Batasuneko kide den edozein estatutako nazionalitatea edukitzea. Parte hartzeko aukera izango dute, halaber, Europar Batasunaren estatu kideetako herritarren ezkontideek, edozein dutela ere nazionalitatea eta, betiere, zuzenbidez bananduta ez badaude, haien ondorengoek eta, zuzenbidez bananduta ez badaude, ezkontidearenek, baldin eta hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira. Era berean, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan dauden pertsonak ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta tratatu horietan langileen zirkulazio askea aplikatzen bada.
- b) Adina: 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiro-adina beteta ez izatea.
- c) Gaitasun funtzionala: ez izatea gaixotasunik edo mugapen fisiko edo psikikorik, eginkizunak betetzea eragotziko duenik.
- d) Gaikuntza: ez egotea bereiztuta diziplinazko espediente baten bidez administrazio publikoen edo autonomia-erkidegoetako organo konstituzional edo estatutupekoen zerbitzutik, eta ez izatea ezarrita ebazpen judizial baten bidez enplegu edo kargu publikorako erabateko desgaiuntzarik edo desgaiuntza berezirik. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, izangaiak ezingo du desgaituta egon, ez eta egoera baliokidean egon ere, eta ezingo du ezarrita izan diziplina-zehapenik edo zehapen baliokiderik, zeinaren bidez, baldintza beretan, enplegu publikorako sarbidea eragozten zaion jatorriko estatuan.
- e) Oinarri espezifikoetan eskatutako titulazioa izatea edo titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea. Titulazioak atzerrikoak badira, haien homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.
- f) Indarrean dagoen araubidearen arabera, ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sarturik ez egotea; hala ere, araudiak ematen duen aukera-eskubidea errespetatuko da.
- g) Langileak hautatzeko deialdiko inskripzio-tasa ordainduta izatea, zeina parte hartu nahi den prozesuaren eta lanpostuari dagokiona izango baita eta zeinaren diruzenbatekoa 20,27 eurokoa baita.

Baldintza orokorrak baztertzaileak izango dira, kasu guztietan.

B) BALDINTZA ESPEZIFIKOAK

a) Titulazioa:

- KAZETARITZAKO LIZENTZIATURA(*)
- POLITIKA ETA ADMINISTRAZIO ZIENTZIETAKO LIZENTZIATURA(*)
- PUBLIZITATEKO ETA HARREMAN PUBLIKOETAKO LIZENTZIATURA(*)
- IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOKO LIZENTZIATURA(*)

(*) Dagokion ikasketa-eremuko graduako edo lizentziaturako titulazioak.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, dagokion baliozkotzea edo, hala badagokio, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.

Azken baldintza hori ez zaie aplikatuko Erkidegoko Zuzenbideko xedapenen babesean araututako lanbideen eremuan lanbide-kalifikazioaren aitortpena lortu duten izangaiei. Izangaiei dagokie aitortpen hori egiaztatzea.

b) Euskarako Titulazio Ofiziala, 4. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea (C2)

Baldintza espezifikokoak baztertzailak izango dira, kasu guztietan.

Honako hauek baloratuko dira proba edo egiaztagiriaren bidez:

- c) Komunikazio-kabineteko, web-kudeaketako eta sare sozialen dinamizazioko lanetan esperientzia izatea.
- d) Komunikazio korporatiboari buruzko ezagutza eta esperientzia.
- e) Eduki digitalak sortzen eta editatzen ezagutza eta esperientzia izatea.
- f) Uraren eta kontratazio publikoaren arloko ezagutzak.
- g) Hizkuntza-normalizazioaren, berdintasunaren, laneko arriskuen prebentzioaren, administrazio-prozeduraren eta datuen babesaren arloetako ezagutzak.
- h) Antolatze eta planifikatzeko, taldean lan egiteko eta aldaketari erantzun positiboa emateko gaitasuna
- i) Beste hizkuntza batzuk jakitea.

HIRUGARREN OINARRIA. - ESKAERAK AURKEZTEA

Izangaiek <https://uragentzia.convoca.online/> webgunean sartu beharko dute, elektronikoki identifikatu ondoren, prozesu honi dagokion dokumentazioa betetzeko eta bidaltzeko, baita jarraipena egiteko eta jakinarazpenak jasotzeko ere.

Eskabideak aurkezteko epea deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean hasi eta 2024ko azaroaren 28an amaituko da. Eskaera aurkezteak esan nahi du berariaz onartzen direla deialdi honen oinarriak.

Adierazitako aplikazioan dokumentazioa bidaltzean, izangaiaren ardura izango da atal konputagarri guztietan dokumentazioa eranstea. Baliteke ziurtagiri berbera atal batean baino gehiagotan atxiki behar izatea. Hori egin ezean, ez da aintzat hartuko aurkeztu ez den atalean, eta akats zuzenezintzat hartuko da. Halaber, ez da onartuko aplikazioaren bidez igorri ez den dokumentazioa.

Prozesu honen tasak 20,27 eurokoak direnez, ordainagiria erantsi beharko da inskripzioa egitean.

Zenbateko hori ordaindu beharko da Uraren Euskal Agentziak Laboral Kutxan duen kontuan (zenbakia: ES72 3035 0012 71 0120105003). Identifikazio-kontzeptua hau izango da: 2024-URA-02 eta izangaiaren NANA.

Prozesuan onartua izateko, dagokion eskaera behar den epean eta moduan bete beharko da.

Langileak hautatzeko deialdian inskribatzeagatik ezarritako tasa ordaintzea ez da nahikoa izango prozesuan parte hartzeko: eskaera behar bezala eta emandako epearen barruan aurkeztu behar da, oinarri honetako aurreko apartatuetan adierazitakoari jarraituz.

Eskaeran helbide elektroniko edo mugikor-zenbaki bat ematen duten parte-hartzaileek baimena ematen dute Uraren Euskal Agentziak prozesuan zehar egin ditzakeen komunikazioetarako erabiltzeko. Eskatzailearen erantzukizuna izango da osorik, helbide elektronikoa eta telefono-zenbakia oker idatzi edo ematea, bai eta Uraren Euskal Agentziari haien edozein aldaketa jakinaraztea ere.

LAUGARREN OINARRIA. - ESKAERAK EGIAZTATZEA

Zuzentzeko modukoak diren hutsak zuzentzeko, 3 egun balioduneko epea egongo da, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda URaren webgunean eskuragarri dagoen aplikazioan argitaratuko da: <https://uragentzia.convoca.online/>

BOSGARREN OINARRIA. - HAUTAKETA-PROZEDURA

Fase hauek izango ditu hautaketa-prozedurak:

1. FASEA: PROBAK (gehieneko puntuazioa: 50 puntu)

Uraren Euskal Agentziaren webgunean argitaratuko da proben data, lekua eta ordua. 1. faseko proba teorikoak eta/edo praktikoak egun berean egingo dira.

1A FASEA

Deialdian zehaztutako gai-zerrendari buruzko ezagutza baloratzeko testa; gehienez ere 20 puntu lor daitezke (I. eranskina).

1B fasera igaroko dira gehieneko puntuazioaren gutxienez erdia (10 puntu) lortu dutenek.

1B FASEA

Komunikazio-kabineteari, web-kudeaketari eta sare sozialen dinamizazioari buruzko ezagutza-proba: 30 puntu, gehienez.

2. fasera igaroko dira gehieneko puntuazioaren gutxienez erdia (15 puntu) lortu dutenek.

2. FASEA: KONPETENTZIEN GAINEKO ELKARRIZKETA (Gehieneko puntuazioa: 15 puntu)

a) 1. fasean puntu gehien lortu duten 15 pertsonak elkarrizketatuko dira. Berdinketa gertatuz gero, puntuazio bera duten izangai guztiak elkarrizketatuko dira: Helburua zera da: izangaiak ebaluatzea jakiteko bete nahi den lanpostuan aritzeko beharrezkoak diren konpetentziak dituzten (antolatze eta planifikatzeko, taldean lan egiteko eta aldaketei positiboki erantzuteko gaitasunak).

Hautagaiek lanpostuan aritzeko behar diren ezaugarriak, trebetasunak eta konpetentziak dituzten ebaluatu eta diskriminatuko da, ñabardurei erreparatuz.

Izendatutako epaimahai batek egingo du elkarrizketa, 1. faseko proba guztiak zuzenduta daudenean.

b) Merezimenduak baloratzeko/puntuatzeko egiaztagiriak entregatzea:

- a. Esperientzia: Lan-bizitzaren ziurtagiri eta emandako zerbitzuen ziurtagiri bidez behar bezala justifikatutako esperientzia soilik balioztatuko da.
- b. Deialdiaren xede den lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duen prestakuntza espezifikoaren titulua Unibertsitateko titulazioak soilik aurkeztuko dira.
- c. Beste hizkuntza batzuen jakintza egiaztatzea.

2. fasea egiteko proposatzen den egunean entregatu behar dira merezimendu-faseko egiaztagiria. Aurrealdea eta atzealdea agertuko dira kopietan.

Egiaztagirien egite-datak nahitaez izan beharko du eskaerak aurkezteko azken eguna baino lehenagokoa.

3. FASEA: MEREZIMENDUAK (Gehieneko puntuazioa: 35 puntu)

Erreferentziako lanpostua behin betiko betetzeko prozeduran merezimenduak baloratzeko, honako hau hartuko da kontuan:

1) Egindako lanaren balorazioa: Komunikazio-kabineteko, web-kudeaketako eta sare sozialen dinamizazioko lanetan behar bezala egiaztatutako lanbide-esperientziagatik 25 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

- Azken 6 urteetan komunikazio kabineteko, web kudeaketako eta sare sozialen dinamizazioko lanetan lan egindako hilabete bakoitzeko 0,35 puntu emango dira.

Justifikatzeko, hautagaiak lanetan izandako esperientziaren banakapena aurkeztu beharko du, eginkizun nagusiak eta epea adierazita. Gizarte Segurantzaren lan-bizitzaren txostena aurkeztu beharko da, baita honako dokumentazio hau ere:

- Enplegatzailearen ziurtagiria, sinatuta eta zigilu ofizialarekin, argi eta garbi adierazita lanaren iraupena, egindako rola eta egindako Komunikazio-kabineteko, web-kudeaketako eta sare sozialen dinamizazioko lanen deskribapena.
- Komunikazio-kabineteko, web-kudeaketako eta sare sozialen dinamizazioko lanetan parte hartu izana egiaztatzen duten kontratuen kopia, datak eta proiektuen deskribapenak ere jasota.

2) Prestakuntza: unibertsitate-tituluak gehienez ere 8 punturekin balioetsiko dira:

a) Unibertsitate-tituluak baloratuko dira, baldin eta zuzenean eta berariaz deitutako plazen eginkizunak betetzeko eragiten badute. Gehienez ere 8 puntu emango dira:

- (i) Deialdian sartzeko erabilitakoaz bestelako titulu ofizialak baremo honen arabera puntuatuko dira, titulazioaren berariazko betekizunen barruan sartuta: 3 puntu titulu bakoitzeko.
- (ii) Doktoregoa: 4 puntu titulu bakoitzeko.
- (iii) Aurrekoak ez diren unibertsitateetako masterrak eta diplomak
 - (1) 250 ordu edo gehiago eta 600 ordu baino gutxiago irauten badu: puntu 1 titulu bakoitzeko.
 - (2) 600 ordu edo gehiagoko iraupena: 2 puntu titulu bakoitzeko.

Unibertsitate-ikasketa bereko hainbat ziklo gainditu izana ziurtatzen duenari horien artetik maila goreneko zikloaren titulua besterik ez zaio baloratuko.

Ez da baloratuko gradu-titulua, baldin eta ikasketa berberen unibertsitate-titulua dutenei (diploma edo lizentzia, ingeniari-tza, ingeniari-tza teknikoa, arkitektura edo arkitektura teknikoa) zuzendutako egokitzapen-ikastaro baten bidez lortu bada. Sarbidea graduarekin (edo ingeniari-tza teknikoarekin) bada, lanbide arautuak gaitzen dituzten masterrak ez dira merezimendu gisa zenbatuko, baizik eta sartzeko titulazio gisa.

3) Frantsesa, ingelesa edo alemana jakitea gehienez ere 2 punturekin baloratuko da, baremo honen arabera:

- a) Hizkuntza-eskola ofizialeko B1 maila edo baliokidea, frantsesean, ingelesean edo alemanean: 0,5 puntu, hizkuntza bakoitzeko.
- b) Hizkuntza-eskola ofizialeko B2 maila edo baliokidea, frantsesean, ingelesean edo alemanean: 1 puntu, hizkuntza bakoitzeko.
- c) Hizkuntza-eskola ofizialeko C maila edo baliokidea, frantsesean, ingelesean edo alemanean: 2 puntu, hizkuntza bakoitzeko.

Txosten bat idatziko da emaitzak biltzeko; ondoren, epaimahaiak emaitzak onartutakoan, akta egingo da, zeinean adieraziko baita zein izangaik lortu dituen puntu gehien 1., 2., eta 3. faseetan eta zein diren, puntuazio-hurrenkeraren arabera, haren atzetik geratu diren pertsonen behin betiko zerrenda. Zerrenda horretako izangaiekin komunikazio teknikari-posturako lan-poltsa osatuko da, betiere, gutxienez 8 puntu lortu badituzte 1A fasean eta 12 puntu, 1B fasean. Poltsako izangai guztien merezimenduak barematuko dira. Lan-poltsak 5 urteko iraupena izango du, argitaratzen denetik hasita.

Uraren Euskal Agentziaren webgunean argitaratuko da zerrenda, izangaien NANaren laugarren, bosgarren, seigarren eta zazpigarren posizioekin argitaratu ere.

SEIGARREN OINARRIA. - KALIFIKAZIO-EPAIMAHAIA

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak izendatutako epaimahai batek ebaluatuko du prozedura.

Kalifikazio Epaimahaia nagusiki teknikoa izango da, eta, hura osatzeko, aintzat hartuko dira espezialitate-, inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioak eta emakumeen eta gizonen berdintasuna. Honako hauetan xedatutakoa kasu guztietan beteko da: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 60. artikulua (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategina) eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. artikulua.

Kalifikazio-epaimahaiak kide kopuru bakoitia izango du; horietako bat epaimahaiburu izango da, eta besteak epaimahaikide. Kideetako bat idazkari izendatuko da. Epaimahaia osatzen duten guztiek ordezkioa izango dute.

Izendapenak egiteko garaian, kideen egokitasuna eta kualifikazioa bermatuko dira.

Epaimahaiak erabaki dezake aholkulari espezialistak hartzea hautaketa-prozesuko proba bateko edo batzuetako lanetarako. Aholkulari espezialista horiek hitza izango dute, baina botorik ez, eta beren lan bakarra izango da epaimahaiari laguntzea espezialitate teknikoetan.

ZAZPIGARREN OINARRIA. - IZANGAIA AUKERATZEA ETA LAN-POLTSA ERATZEA.

Hautaprobak amaitutakoan, Kalifikazio Epaimahaiak guztizko puntuaziorik altuena duen izangaia kontratatzeko proposamena egingo du –gustizko puntuazioa fase bakoitzean lortutako puntuen batura izango da–.

Horretaz gainera, epaimahaiak, aldi baterako beharrak estaltzeko lan-poltsa bat eratze aldera, zerrenda bat osatzeko proposamena egingo du, zeinean jasoko baitira guztizko puntuazio altuena duten hurrengo izangaiak –fase bakoitzean lortutako puntuak batuko dira horretarako–. Lan-poltsan sartzeko, ezinbestekoa izango da 1A fasean gutxienez 8 puntu izatea eta 1B fasean, 12 puntu.

Salbuespen gisa, deialdi honetako lanpostua esleitu eta urtebeteko epean hutsik geldituko balitz, lan-poltsako pertsoneri deituko zaie zerrendako ordenari jarraituz, lanpostua bete dezaten langile lan-kontratudun finko moduan. Nolanahi ere, kontuan hartuko da deialdi honetarako egiaztatutako sarbide-baldintzak betetzen direla, ez geroagokoak, bai egiaztatutako esperientziari dagokionez, bai gainerako betekizun edo merezimenduei dagokienez. Lan-poltsaren lehentasun-hurrenkera ez da aldatuko argitaratu eta lehenengo urtean.

Berdinketa gertatuz gero, eta izangaiek gaitasun berberak badituzte, emakumeei lehentasuna emango zaie maila eta kategoria jakin batzuetan –hain zuzen ere, emakumeen ordezkaritza % 40tik beherakoa denetan–, salbu eta beste izangai batek neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak baditu –ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko diskriminaziorik–, hala nola laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea–. Hori guztia, bat etorri Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen IV. kapituluko 20. 1.a) artikuluekin.

Behin guztizko puntuazio altuena duten izangaiak hautatu direnean, lan-poltsa osatuko da, zeinean lehentasuna izango baitute prozesuko fase guztiak gainditu eta gutxienez % 33ko desgaitasuna dutela egiaztatzen duten izangaiek. Merezimenduak baloratzeko fasean lortutako puntuak 1,3 zenbatuko dira; hau da, lortutako balio errearen % 30 gehiago. Horretarako, nahitaezkoa izango da dagozkion ziurtagiriak aurkeztea.

1., 2., eta 3. faseetan berdinketa gertatzen bada, Epaimahaiak erabaki dezake, beharrezkoa irizten badio, beste proba bat egitea, izangai egokiena hautatze aldera.

ZORTZIGARREN OINARRIA. - HAUTAPROBAK AMAITUTAKOAN AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA.

Izangai interesdunari jakinaraziko zaio hautatu egin dutela. Ondoren, kontratua sinatu baino 10 egun natural lehenago, pertsona horrek bigarren oinarrian azaltzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu Uraren Euskal Agentzian. Horretarako, aurretik adierazitako dokumentazio guztiaren jatorrizkoak edo kopia konpultsatuek aurkeztu behar ditu:

- Curriculumean adierazitako prestakuntza akademikoa egiaztatzen duten titulu, ziurtagiri edo diplomen kopia autentifikatua, edo halakoak eskuratzeko tasak ordaindu izanaren frogagiria.

Atzerriko tituluak dituzten izangaiek baliozkotzearen edo homologazioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte.

Araututako lanbideen eremuko lanbide-kualifikazioa Europar Batasuneko Zuzenbideko xedapenekin bat aitortua dutenek agiri bidez egiaztatu behar dute egoera hori.

- Hizkuntzen ziurtagiriaren kopia autentifikatua edo fotokopia.

- Lan-bizitzaren agiria, zeinak egiaztatu behar baitu curriculumean adierazitako esperientzia profesionala.

- Zinpeko deklarazioa edo hitzematea, non izangaia adieraziko baitu ez dagoela diziplinazko espediente baten bidez bereiztuta administrazio publikoen edo autonomia-erkidegoetako organo konstituzional edo estatutupekoen zerbitzutik, eta ez duela ezarrita ebazpen judizial baten bidez enplegu edo kargu publikorako erabateko desgaitasunik edo desgaitasun berezirik. Halaber, zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, adierazteko ez daudela nahasita desgaitasuneko edo bateraezintasuneko legezko ezein kausatan. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, esateko beren estatuan ez daudela desgaituta edo egoera baliokide batean eta ez dutela ezarrita enplegu publikorako sarbidea eragozten duen diziplina-zehapenik edo neurri baliokiderik.

Betekizun hori egiaztatzeko, eredu normalizatu bat jarriko da izangai hautatuen eskura.

- Esleitutako lanpostuan aritzeko eskatu diren bestelako baldintza espezifikoaren egiaztagiria, hala badagokio.

Eskatutako dokumentazioa adierazitako epean aurkezten ez duen izangaia prozesutik kanpo geratuko da, eta Uraren Euskal Agentziak gai kalifikatu den hurrengo izangaia kontratatu ahal izango du, betiere prozeduraren amaierako puntuazioaren hurrenkerari jarraituz.

Lan-poltsako kideen puntuazio-hurrenkera zein den, ordena horretan deituko zaie.

PUNTUAZIO-LABURPENA

	Irizpidea		Gehieneko puntuazioa
1.Fasea	Ezagutza-probak		50
2.Fasea	Konpetentziei buruzko elkarrizketa	Epaimahaia	15
3.Fasea	Merezimenduak	Esperientzia	25
		Formakuntza	8
		Hizkuntzak	2

BEDERATZIGARREN OINARRIA. - DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO-KLAUSULA

Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: *Hautaketa-Prozesuak*.

- **Arduraduna:** Uraren Euskal Agentzia
- **Helburua:** Langileak hautatzea eta lanpostuak betetzea deialdi publikoen bidez.
- **Legitimazioa:**
 - Tratamendua beharrezkoa da lege-betebeharrak betetzeko.
 - Tratamendua beharrezkoa da misio bat betetzeko, zeina egiten baita interes publikoaren izenean, edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzeko.
- **Hartzaileak:**
 - Ez da daturik lagatzen

- **Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere
(www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/).
- **Informazio osagarria:** Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:
www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/136600-cap2-eu.shtml

Araudia:

- Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra
(www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

ID: 1366

HAMARGARREN OINARRIA. - ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARTEKO LANKIDETZA.

Uraren Euskal Agentziak, aurreko oinarrian xedatutakoaren arabera, EAEko beste administrazio edo erakunde publiko batzuen esku jar dezake lan-poltsan sartu diren izangaien zerrenda, baldin eta administrazio edo erakunde horiek hala eskatzen badute eta izangaiek bederartzigarren oinarrian aipatutako esanbidezko adostasuna eman badute. Edonola ere, eskaerei benetan erantzuteko, bi baldintza hauek hartuko dira kontuan: lan-poltsako kideen prestasuna eta Uraren Euskal Agentziaren pertsonal-beharrak.

1. ERANSKINA.- GAI-ZERREDA

Gaur egungo komunikazioa.

1. Komunikazio instituzionala, komunikazio instituzionaleko kabineteen bitarteko, funtzio eta antolamenduaren bidez.
2. Erakundeen komunikazioa. Komunikazio korporatiboaren oinarriak. Komunikazio instituzionalaren historia, izaera eta kontzeptua. Komunikazio instituzionalaren eremuak eta moduak. Administrazioen komunikazio- eta publizitate-kanpaina instituzionalak publikoak.
3. Internet eta iritzi publikoa: demokratizazioa eta zatiketa. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak informazio-eremuan sartzea. Masa-komunikazioaren gizartetik informazioaren gizartera. Ohiko komunikabideetan duen eragina.
4. Internet komunikazio-kanal gisa: sarearen ezaugarri orokorrak. Egunkari digitalak. Entzunaldia eta sarbidea. Prentsa tradizionala hedabide digitalen agerpenaren aurrean. Egunkari digitalen egitura eta edukiak. Gaurkotasunaren kontzeptua egunkari digitalean. Elkarreragina entzuleekin. Informazioa eta komunikazioa sozializatzea: bitakorak, foroak, posta-zerrendak, weblogak eta bestelakoak.
5. Web 2.0. Definizioa. Elkarreragina. Sare sozialak. Eusko Jaurlaritzaren sare sozialetako erabileren eta estiloaren gida. Facebook (profilak, orrialdeak, taldeak) eta X: sorrera, garapena, desberdintasunak. Beste sare batzuk (Tik Tok, LinkedIn eta beste batzuk). Bilatzaileak. Webeko posizionamendua (SEO, SEM...). Blogak (erantzukizuna, iturriak, fidagarritasuna). Youtube. Beste irudi-kanal batzuk (Vimeo, Bliptv eta beste batzuk). Flickr irudiak. Wikiak. RSS. Foroak. Etiketak (Tag). Web-nabigazioaren trackinga.
6. Komunikazio digitala eta 2.0 teknologiak administrazio publikoetan: herritarrek parte hartzeko tresnak, bilatzaileetako posizionamendua. Sare sozialak administrazio publikoan: jardunbide egokiak, jabetza intelektuala, pribatutasuna. Interneten dimentsio etikoa.

7. Webgunearen oraina eta geroa. Web semantikoaren kontzeptua. Open data. Sektore publikoan informazioa berrerabiltzea: 37/2007 Legea, azaroaren 16koa. Informazioaren arkitektura eta erabilgarritasuna. Edukien definizioa eta sailkapena, informazioaren egitura, nabigazio-sistemak. Diseinu erabilgarriaren printzipioak. Estilo-orriak: definizioa eta kudeaketa.
8. Publizitatea komunikazio-prozesu gisa. Publizitate-mezua Alderdi soziologikoak, psikologikoak eta ekonomikoak. Publizitate-prozesua: elementuak eta etapak. Publizitate-hizkuntza. Sustapena eta babesa. Marketina. Sormen-plana. Briefinga. Euskarriak publizitarioak. Baliabideen plana. Publizitate-agentziak. Kontzentrazioa. Publizitate tradizionalaren alternatibak: publizitate-estrategia berriak. Publizitate instituzionala. Publizitate-kanpainak diseinatzea eta egitea.
9. Nortasun eta irudi korporatiboa. Marka balio gisa erabiltzea. Marketin-komunikazioa. Erakunde-nortasuna. Kontzeptua eta garrantzia. Estilo korporatiboa. Irudi instituzionala. Kontzeptua eta garrantzia. Irudi instituzionala osatzea.
10. Barne-komunikazioa. Barne-komunikazioko plana eta hura aplikatzeko baliabideak.

URAn berri emateko gutxieneko baldintzak

11. Uren Esparru Zuzentaraua (2000/60/EE Zuzentaraua). Ingurumen-helburuak. Ur-masen, presioen eta inpaktuen motak eta ezaugarriak. Egoera ekologikoa, potentzial ekologikoa eta masa artifizialen eta oso eraldatuen izendapena. Demarkazio hidrografikoaren ezaugarriak. Plangintza hidrologikoaren helburu orokorrak.
12. Estatuko Uren Legearen testu bategina (uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua) eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua (apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua). Jabari Publiko Hidraulikoa. Ibaiertzak eta ibaiertzak. Aintzirak, aintzirak, urtegiak eta urpean gera daitezkeen eremuak. Plangintza hidrologikoa. Jabari publiko hidraulikoaren erabilera. Jabari publiko hidraulikoaren eta uren kalitatearen babesa.
13. Euskal Autonomia Erkidegoko araudia. 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena. 178/2023 Dekretua, azaroaren 28koa, Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak onartzen dituenak.

14. Sektore publikoko kontratuak. Kontzeptuak eta motak. Esleitzeko elementuak eta prozedurak. Betetzea. Prezioak berrikustea eta kontratuetan beste aldaketa batzuk egitea. Administrazio-kontratuak ez betetzea.
15. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Printzipio orokorrak. Interesdunak. Herritarren eskubideak. Administrazio-prozedura: prozeduraren faseak.
16. 11/2007 Legea, ekainaren 22koa, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa: Herritarrek herri-administrazioekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko dituzten eskubideak.

URA ingurune digitalean

17. Herritarrentzako arreta eta zerbitzu digitalak. Web zerbitzua. 108/2004 Dekretua: EAEko Administrazio Publikoak Interneten duen presentzia. Edukien kudeatzailea eta atarien kudeatzailea. Edukien katalogazioa kudeatzea. Euskadi.eus estilo-liburua.
18. Komunikazioa Administrazioan: hizkuntza argia eta irakurketa erraza herritar guztientzat. Administrazio-hizkera zuzen erabiltzea. Administrazio-hizkera ez-sexista.
19. Webguneen irisgarritasuna, Sektore publikoko gailu mugikorretarako webguneen eta aplikazioen irisgarritasunari buruzko irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretuaren arabera. Erabilgarritasun-printzipioak. Informaziorako sarbide unibertsalaren bermea (UNE-EN 301549:2019 araua, URAREN webgunea garatu eta mantentzeko buruzkoa). Irisgarritasuna berrikusteko txostenak.
20. 91/2023 DEKRETUA, ekainaren 20koa, herritarrei arreta integrala eta kanal anitzekoa emateko eta zerbitzu publikoak elektronikoki eskuragarri jartzeko dena. Interneteko presentzia-arauak. Atariko teknikariaren rola.
21. Web-analitikaren kudeaketa: webgune baten errendimendua; erabiltzaileek webgunean duten portaera; online marketin-estrategien eraginkortasuna; erabiltzaile-neurrien optimizazioa.

URA eta langilea.

22. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legea: I. titulua, «Xedea eta aplikazio-eremua». II. titulua: «Administrazio publikoen zerbitzuko langile-motak». III. titulua: «Eskubideak eta betebeharrak. Enplegatu publikoen jokabide-kodea».
23. Laneko arriskuen prebentzioa. Xedea. Eskubideak eta betebeharrak: laneko arriskuen aurrean babesteko eskubidea. Prebentzio-jardueraren printzipioak. Prebentzio-plana, arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza. Langileen prestakuntza.
24. Berdintasuna: testuingurua/aurrekariak. Xedea eta helburua. Printzipio orokorrak: tratu-berdintasuna; aukera-berdintasuna; aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea; genero-ikuspegia txertatzea; ekintza positiboa; sexuaren araberako rola eta estereotipoak desagerraraztea; ordezkaritza orekatua; lankidetzeta eta koordinazioa. Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: xedea, aplikazio-eremua eta printzipio orokorrak.
25. Euskararen erabileraren normalizazioa. Herritarren hizkuntza-eskubideak. Enplegatu publikoen hizkuntza-gaikuntza. Euskararen erabilera normalizatzeko planak.
26. Datu pertsonalen babesaren oinarrizko alderdiak: kontzeptuak, printzipioak eta eskubideak. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa: xedea eta printzipioak.